

Onddoak

Onddo terminoaren barruan **legaminak**, **lizunak** eta **perretxikoak** sortzen dituzten organismoak sartzen dira. Ez dira landareak, ezta ere animaliak, beste erreinu batekoak dira, Fungi Erreinukoak.

Onddoek ez dute fotosintesirik egiten, baina landareak bezalaxe ugaltzen dira, esporen bitartez. Elikatzeko energia bihurtzen duten materia organikoa erabiltzen dute. Onddoak aztertzen dituen zientziaren adarra mikologia da. Ingurumenarekin duten harremanaren arabea, parasitoak, sinbionteak edo saprofitoak izan daitezke. Onddo batzuen fruituak jangarriak diren arren beste batzuk, mikosia deitzen den, gaixotasuna sor ditzakete.

DESKUBRITU
IBAIKO
FAUNA ETA
LANDARETZA



Plurizelularrak



Legaminak

Unizelularrak



Lizunak




Mizelak

Perretxikoak, onddoak dira?

Perretxikoak onddoak diren arren, onddoen fruitua besterik ez dira, onddoaren ugaltze aparatuen parte bat dira. Sagar bat zuhaitz batean bezala.

Perretxikoa osatzen duen "benetako" onddoa lurperatuta egoten da, mizelioa. Mizelioa mikroskopikoa da, eta ez da erraza begi hutsez ikustea.

 Onddoen biodibertsitatea arriskuan dago hainbat arazoren ondorioz; besteak beste, perretxiko-bilketan intetsitatea, klima-aldaketak basoetan duen eragina eta poluzioaren eragina.

DESKUBRITU
IBAIKO
FAUNA ETA
LANDARETZA



Orain onddoei buruz hainbeste dakizuela... Gurutzegrama egin!



1

2 M

3

4 S

5

6

X

G

I

Grid of empty boxes for a crossword puzzle.

- 1 Onddoak sortzen dituzten gaixotasunak... deitzen dira.
- 2 Onddoak ikertzen dituen zientziaren adarra... da.
- 3 Alga eta onddoen arteko harremanen ondorioz...
- 4 Onddoak sinbionteak,
- 5 Onddoak ... erreinukoak dira.
- 6 Onddo jangarri bat... da.

